



3 INGURUMENA
Mugikortasun Astea ospatuko da herrian, ekintza ugariarekin

Bihar hasi eta hilaren 22a bitartean ospatuko da Mugikortasun Jasangarriaren Aldeko Astea munduko hainbat tokitan; Lasarte-Orian ere bai. Asteazken, ostegun eta ostiral honetarako egitarau zabalba prestatu dute, hainbat ekintza biltzen dituenak: jolasak, ikastaroak, martxak, bizikleten bigarren eskuko azoka... Ekimen ugari, mugikortasun jasangarriaren bitartez mundua toki osasuntsuago eta garbiago bat bilakatzeko helburuarekin.



4-5 EUSKARA
Buruntzaldeako kirol-jardueretan euskara fultzatzen

Eskualdeko kirol ikastaroetan euskarari bidea ireki nahi diote Udal erakundeek elkar-lanean. Azken hamarkadako datuek erakusten dutenaren arabera, euskaraz egin daitekeen kirol eskaintza nabarmen areagotu da Buruntzaldean. Aurten, 2014-2015 ikasturtean ere, euskararen lekukoa erabiltzaileei eskainiko zaie. Kiroldegietako monitorean adierazitaokoren arabera, geroz eta gehiago egiten da kirola euskaraz.

Extremadura eguneko ospakizunak

Larunbateko meza eta herri-afaria izan dira ekitaldi nagusiak

Extremadura Etxeko lasarteartarrek hiru eguneko egitarau oparoa izan dute asteburuan herrian eta eguraldi ona lagun, Jaizkibel plazan eta Adarra Kaleko Extremadura Etxean bertan denetarioko kultur-ekintzak antolatu dituzte. Besteak beste, bazkari eta afari herrikoikiak, banderaren goratzea, meza, haur-jokoak, musika kontzertuak, bolo txapelketa, karta-jokoa... Ez dute aukera faltarik izan hiru egunez.



Denera 80 lagun bildu ziren larunbat gauean Extremadura Etxean egindako afarian, eta "lasarteartar guztiengatik" egin zuten topa.

Ostiralean hasi ziren Guadalupeko Ama Birjinaren omenezko ospakizunak. Iluntzean, Adarra kaleko egoitzaren aurrean, Extremadurako bandera zuri berde eta beltza goratu zuten euren lurraldeko ereserkia abestearikin batera.

Hortik aurrera, festak ez zuten etenik izan. Afaltzeko Extremadurako kaldereta edo eltzekaria jan zuten eta ostean, Jaizkibel Plazan "The Garax" eta "The Ruibardos" taldeek kontzertuak eskaini zituzten.

Guadaluperen omenez

Larunbata izan zen festen egun handia. Goizean extremadur meza ospatu zuten Xabier Andonegi apaizak gidatuta eta Errenterriako "Ecos de Montañúe" kantari-taldeak girotua. Eguerdi aldera haur-jolasak egin zituzten Jaizkibel Plazan, besteak beste zaku-lasterketa, sokatari, auklien jolasa... Gosea egin ostean, paella-

jana egin zuten elkarrearen egoitzan eta amaitutakoen, mus txapelketa jokatu zuten kartazaleek.

Gauean, 80 bazkide eta lagun bildu zituen afaria egin zuten Extremadura Etxean, herriko agintariak eta Senblante Abdulezuko kideak bertan zirela. Gainera, Donostia eta Errenterriko Extremadura Etxeetako ordezkariek ere izan ziren gonbidatu. Afariari ekin aurretik, Emilio Llanos Extremadura Etxeko presidentek "lasarteartar guzti-guztiengatik" topa egiteko eskatu zuten.

Afaria amaituta, plaka bana eman zitzaion etxeko kide izaten 25 urte daramatzatenei eta elkarreagatik eginko lana aitortu zitzaion.

Afaloosten berri, "Cafe Irlandés" musika-taldearen eskutik gau-festa izan eta kanta ezagunen erritimora dantzan egiteko aprobetxatu zuten herritar askok. Goizal-



Guadalupeko Ama Birjinaren irudia bertan zela, meza eman zuten larunbatean.

deko 3:00etan, gazteek Extremadurako "miga" ezagunak jateko aukera izan zuten Jaizkibel Plazan bertan.

Ilganda, azken eguna

Guadalapeko Ama Birjina Zaindariaren festan azken eguna ospatu zuen atzo Extremadura Etxeak. Eguerdian

Zambra dantza taldearen eskutik ikuskizuna izan zen eta extremadur eltzekaria bazkaldu ostean, urtero arrakasta izaten duen bolajokoko txapelketa egin zen iluntze aldera. Festei amaiera emateko, ostiralean igo zuten bandera zuri berde eta beltza jaitsi zuten, pen handiz.

EUROMIKEL'S, S.L.

N-1 Ctra 441 km, 34 Polg.
20150 Villabona
Tel.: 943 360850
943 365401
boxes@euromikels.com
www.boxeseuromikels.com

Haztu tu mismo

Auto Mekanika BOXES

943 360850

OFERTA ESKANTZAN

Urtero KOTXEA, MOTO edo FURGONETARI ERREBISIOA egiten edo OLIOA aldatzen, zergatik hainbeste ordaindu ?

Hiru aukera dituzu :

- zuk egiten duzu**
- zuk gurekin ikasiz**
- guk egiten dugu**

DEITU ETA ESKATU PREZIOAK KONPROMEZURIK GABE

MERKATARITZA

Maskotaren eguna igandean

Bigarren edizioa izango da aurten goa; egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek

Etxean maskotaren bat daukatenez eta baita ez daukatenez ere badute plana igandeko. Maskotaren egunaren bigarren edizioa ospatuko dute Atsoabakar auzoan, 10:30ean hasi eta 14:00ak arte. Lasarte-Oriako udaletxetik Atsoabakarrera ibilalditxoa egingo dute lehenbizi, eta auzora iristean, beste hainbat ekintza eta emanaldiz gozatu ahaliko dute bertara hurbiltzen diren herritarrek.

TXINTXARRI

Egitarauaren zati handiena Atsoabakar auzoan egingo bada ere, herriko udal-eremuan hasiko da programako lehen ekintza. Ibilalditxoa antolatuko dute Atsoabakarreko parkerarian, 10:30ean.

Behin parkera iritsita, festak aurrera jarraituko du. 11:15ean Kirebako Mikel Pino txakur hezitzaileak ikus-kizuna eskainiko du, Ada izeneko txakurraekin batera. Txakurtzen elkartearen txanda izango da handik ordu batera, 12:15ean. Frisbiek-ak eta txakurak uzartuko ditu ema-

naldi horrek. Vicente Martinez eta Hiru txakurra izango dira bi protagonistak.

Bi ikuskizun horiek bukatu ostean, 13:30ean, maskota lehiaketa hasiko da. Lau kategoria desberdinetan lehiatu ahaliko dute animaliek: txakur ar ederrean, txakur eme ederrean, txakur mestizo jatorrean eta txakur txikiena.

Elkarte ugari

Animali desberdinekin lan egiten duten hainbat elkarte joango dira igandean Atsoabakar parkera. Txakurrekin aritzen diren Galgoleku, Etxauri eta Adopta Boj eta



Jende ugari bildu zen iaz Atsoabakarreko parkean, Maskotaren lehenengo egunean.

katuekin diharduten Katuka, Miauka eta AKE elkarteak.

Maskotaren egunaren antolatzaileek aurreratu dute aukera egongo dela jaberik ez duten animaliak adoptatzeko, Etxauri zentroaren eskutik. Antolatzaileen hitzetan, iaz 5

animalik aurkitu zuten jabea Maskotaren egunean.

Herritarrei ekitaldira joateko gonbita egiten diete antolatzaileek: "Egun polita bizitzeko aukera edukiko dute, maskotarik eduki edo ez". Euro bateko diru-lagun-

tza egiteko aukera ere izango dute Maskotaren egunera hurbiltzen direnek. Horrez gain, Atsoabakaren dauden Caddie eta Uda-Berri tabernekin pintxo-pote egingo dute goiz osoan zehar. 14:00etan bukatuko da ekitaldia.

Artea zabaltzeko ekimena



Hau da elkartearen irudia, aurrerentzean herrian zabaldu nahi dutena.

Antxota Lasarte-Oriako Artisten elkarteak hainbat ekimen antolatuko ditu.

Emozioa erakusketa Villa Mirentxun jarriko dute irailaren 20, 21 eta 26, 27 eta 28an. 20ean inaugurazio ekitaldia egingo dute 18:00etan Villa Mirentxun eta bertara gonbidatzen dituzte herritarrik.

Bestalde, irailaren 20ean bertan, Extremadura etxean

21:00etan afari berezia egingo dute. Honetan artelanak zozketatuko dira besteak beste.

Afarian parte hartzeko aurrez deitu egin behar da 690286986 telefonora, helbideak 20 euro ordaindu behako dituzte menugatik eta hurrek beriz, 6 euro. Ekintza hauetan parte hartzeko deia egiten dute Antxotako kideak.

Ganbo Iturriren Elkarbizi egitasmo berria

Ganbo Iturri Elkarbizi ekimena aurreratu zuten osteguneko Villa Mirentxun. Elkarteak duen helburu nagusia balioen sustapena da euren hitzetan eta horregatik "Elkarbizi egitasmoa Donostia inguruko bailaran hastearen arrazoi".

Elkarbizitza sustatzea helburu izango duen taldea sortu nahi dutela adierazi zuten. "Bizikidetzaren gaineko ikus-terekin modu ezberdinak azaldu direla jakina da. Eraikak izan diren biktimganako memoria edo presoan gizarteratze beharrez arduratzen direnak nabarmentzen direlarik".

Baina, aurreko hori ahaztu gabe ere, "urteetan zabaldu den indarkeriak utzitako izua deserritzen lagundu behar duen 'zoru etikoa' prestatu nahi dugunok ez daukagu



Villa Mirentxun egin zuten aurkezpena osteguneko.

ahotsik". Hortik abiatu nahi du asmo berriak sustatzaileek azaldu moduan.

"Ikusita kale giro antzeko bizi izan duten udalerriek osatutako eskualdea dela, Buruntzaldeako baruti honetan ariko den giza-taldea osatu nahi dugu".

Gogoetarako esparruak

Taldea, elkarbizitza "aska

eta antitza" normaltzen lagutzeko jairo dela azpimarratu nahi izan zuten.

Taldek egin nahi dituen ekintza nagusiak izango dira, "batetik, go-goeta eta iritziak sortu elkarbizitza lantzeko eratzetan den edozein esparruetan eta bestetik, taldekideentzat edo taldekide kanpoko jendearentzat mintegi eta jardunaldiak antolatuz".

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikulueta edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea

GPKO Kultura eta
Euskara Departamentua

Argitaratzailea:

Txakur Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria

943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS1/93

ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Espigame, Maider
Azurmendi, Jon Abusa E-
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Antola
publizitatea@takun.com
administrazioa@takun.com

Laguntzaileak:

Urriai Murruga, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maialen Anitzi, Aier
Odriozola, Jone M. Hernandez,
Jesux Arretxe, Palao Argitarte, Edo
Galarza

Informazioak:

Xabier Amador

POLITIKA

Mugikortasun Astea herrian

Egitarau zabala prestatu dute, aurreko urteetako ekimen arrakastatsu eta herrikuntza batzuekin

Bihartik hasi eta hilaren 22ra bitarte ospatuko da Mugikortasun Jasangarriaren Aldeko Astea, munduko hainbat tokitan; Lasarte-Orian ere bai. Asteazken, ostegun eta ostiral honetarako egitarau zabala prestatu dute, hainbat ekintza biltzen dituenak: jolasak, ikastaroak, martxak, bizikleten bigarren eskuko azoka... Ekimen ugari, mugikortasun jasangarriaren bitarte mundua toki osasuntsuago eta garbiago bat bilatzeko helburuarekin.



Pablo Barrio alkatea eta Artelatze teknikari Eli Gondaratz, joan den ostiraleko agerraldian.

TXINTXARRI

Orain arteko ekimen arrakastatsuei jarraipena emanez eta herrikuntza batzuk gehituz, iritsi da herrira aurrerago Mugikortasun Jasangarriaren Aldeko Astea. Agerraldia egin zuten joan den ostiralean Pablo Barrio alkateak eta Artelatze teknikari Eli Gondaratzek, ekimenaren behatasunak azaltzeko.

Barriok esan zuen "garrantzia handia" duela mugikortasunak eguneroko bizitzan, eta alor horretan "jasangarritasunez" lan egiteak etorkizunearan "mundu garbi eta osasuntsuago bat" izatea ahalbidetuko duela. Hori lortzeko tresna garrantzitsuenetakoak dira bizikleta eta garraio publikoa, Barrioren ustez: "Airea garbi mantentzeko bizikleta da onena; bestalde, garraio publikoaren erabilera handitzeak sare

publiko osatuago bat izaten lagunduko digu".

Bihartik 22ra arte ospatzen da Mugikortasun Astea. Aste honetako hiru arratsaldetan egingo dituzte hainbat ekintza Lasarte-Orian: asteazken, ostegun eta ostiralean. Barriok azpimarratu du aurreko urteetan "arrakastatsua" izan diren ekimenak mantendu dituztela eta herrikuntza batzuk ere sartu dituztela.

Egitarau zabala

Artelatze teknikari Eli Gondaratzek aurkeztu zuen Mugikortasun Astearen egitaraua. Esan du "adin tarte guztietako pertsonentzat" direla datoren asteazken zehar burutuko diren ekimenak.

Zabala da egitaraua: "Kalea oinezkoentzat" izeneko ekitaldi multzoa antolatu dute asteazkenean; jolasak eta kirolak, "Sewgway" zirkuitu bat eta ONCEren eskutik jolas didaktiko batzuk, 16:30etatik 19:30etara.

Ostegunean hirian bizikleta erabiltzeari buruzko ikastaroa emango dute, Okendo plazan. Aurrez izena eman beharko dute herritarrek, 943670249 zenbakira deituta.

Ostiralean bizikleta izango da protagonista. "Bizikleta Festa" ospatuko dute Okendo plazan, 16:30-19:30 bitartean. Bizikleten martxak antolatu dituzte, adinaren arabera banatuta. Horrela, 16:00etan 2-6 urte bitartekoak otetako dira triziklo edota motor txikiak. 16:30ean 7-11 urtekoak aterako dira eta 17:00etan, 12 urteik gorakoak.

Ostiralean bertan bigarren eskuko bizikleten azoka bat jarriko dute Okendo plazan, 16:30-19:30 bitarte. Bizikletak saldu nahi dituztenek ordu eta erdi lehenago eram beharko dituzte azokara bertara. "Arrakasta" eduki zuten azokak lehengo urtean, Gondaratzek hitzetan.

Era berean, udaletxearen web orrialdean eta herriko

zenbait dendetan ikusgai egingo dira gaurtik aurrera herritarrek bidalitzeko argazkiak, "mugikortasuna herrian" gaia erkin zerikusia dutenak.

Ekimenaren helburuak

Pablo Barrio alkateak zehaztu zituen ekimenaren xedeak: udalerri mailan mugikortasun jasangarriagoaren aldeko ekimen eraginikorak abian jarzea, jarduerak hezitzaile eta parte-hartzaileak antolatzea kalean (urteaz zehar motor-dun ibilgailuek erabiltzen dituzten eremuetan, ahal izanez gero) eta herritarrek kontzientziaztea.

Antolatzaileek zenbait ohar egin dituzte: beharrezkoak direla bizikleta eta kaskoa jardueraarako; ekintzaz doakoak izango direla, itxita izango dela Kale Nagusia asteazkenean (1-34 zenbakiaren artean), eta "Muitzu Mantangorri" autobus zerbitzua doakoa izango dela irailaren 22an, egun osoan.

KULTURA

Euskal jantzi tradizionalak egiteko ikastaroak

Urtero bezala, bi ikastaro antolatu ditu Itakunek euskal jantzi tradizionalen inguruan. Urriaren eta azaroaren izango dira ikastaro horiek, bi hilabete horietako astearte eta ostegun guztietan, 15:00etatik 17:00etara. Emakumeen zentroan egingo dira bi ikastaroak eta Jone Artola izango da irakaslea bi hauetan.

Takuneko bazkide direnek 22 euro ordaindu beharko dituzte ikastaroa egiteagatik; bazkide ez direnentzat berriz, izen ematearen prezioa 25 eurokoa izango da. Izena emateko Itakuneko bulegotik pasa behar da.

MERTAKARITZA

Mantangorri bidaia doan Aterpearekin

Aterpea eta udalaren elkar-lanarekin, herritarrek Aterpearekin diren taberna zein dendetan 5 eurotik gorako erosketak egitekoan, Mantangorri autobusaren bidaia doan izango dituzte.

Kanpaina bigarren aldir martxan jarzea erabaki dute herriko merkataritza sustatzeko eta bide batez, Mantangorriaren erabilera herritarren artean zabaltzeko.

Erosketak egitekoan, erabilertzeko Mantangorri txartelaren truke, 0,60 zenitimoak diruzten iturizten dituzte denda eta taberneak. Beiti ere, erosketa bakoitzeko txartel baten balioa emango da.

"Eskozia yes!" mosaikoa Okendon ostegunean

EH Bilduko mosaiko erraldoia osatu nahi du Okendo ostegunean, Eskoziako erreferenduma egiten den egunean.

"Erabakitze eskubidea defendatu eta bere erabilera praktikoaren alde gaudenak, bi gertakari garrantzitsuren artean gaude. Azaroaren 9an Kataluniako kontsultaren aurretik, izan zen Diada ikusgarria eta ostegunean, burutuko den Eskoziako erreferenduma".

EH Bilduko kideek eskoziar herria zoriondu nahi izan zuten, "bere etorkizuna erabakitze eskubidea aplikatuko duela" modu demokratikoan. Aldi berean,



Ostiralean agerraldia egin zuten Okendon herriko EH Bilduko kideek.

Kataluniari gure zorion beronenak, gure babesa eta gure elkartasuna ere, azaroaren 9ko kontsultaren defentsa eta aldarrikapenaren inguruan lortu duen gizarte eta politikaren suspertzearengatik, eta estatu espainiarrek jartzen diz-

kion traben aurrean egiten dituen ahalagengatik".

EH Bilduren ustez bi gertakariak herrien erabakitze eskubidearen auzia egunerokotasun politikoren agendan jarri dute "eta frogatu dute Europar gai horrek gaurkot-

sun duela eta honen inguruko debata landu eta hura praktikara eramateko aukerak badaudela". Eskoziako erreferenduma dela eta, "mosaiko bat osatu nahi dugu Okendon Eskoziako herriari gure babesa emateko". Beraz herritarrek gonbidatzen dituzte ostegunean 19:30etan Okendon Eskoziako bandera irudikatzena. Honetara Kataluniako eta Eskoziako banderak elkartzeko esan zuten. Bestetik, bihar, EH Bilduko Udaleko bozermanlearen batzordea adierazpen instituzionala erabango du "Eskoziako herriari babesa eman eta Udaletxean Eskoziako bandera jartzeko".

IKASTAROA

Janari manipulatzaile ikastaroa

AELkolabek Udalarekin elkarlanean, janari-manipulatzaile ikastaroa antolatu du, ostalarietako sektoreari zuzendua Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiekin. Ikastaroa irailaren 24ean, izango da Osasun Zentroko bigarren solairuan dagoen erabilera antzeko gelan. 09:30etik 13:30ra izango da saioa eta prezioa 45 euro. Prezio berezia izango dute langabeteek, 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko delitu OMIC 943 361 605 edo Elkolab 943 533 303.

BURUNTZALDEAN KIROL JARDUERAK EUSKARAZ



Kirol jardueretan euskarari txanda eman

Kirol jardueretan euskarari txanda eman

TALDE TIPOLOGIA KIROLDEGIKO IKASTAROETAN

Eskauldeko kirol ikastaroetan euskarari txanda ematea begiz jota dute Udak erakundeek. Datuak argiki dira, euskaraz egin daitekeen kirol eskaintza nabarmen areagotu da azken hamarkadan. 2014-2015. ikasturtean ere euskararen lekua erabiltzaileei eskainiko zaie. Hauek lekua hartu eta sendo eusteko oitzakirik ez dute izango.

raillaren hasiera gauza askoren hasiera da. Beteak beste, kirol ikastoi ematen zaie hasiera. Izan emateak, ordutegiak, egutegi...a, ehunka herritar bere herriko kiroldegian informazio eske edota izena ematen dabilen lanean ari dira Buruntzaldeko Udalek. Euskaraz eta sufituzko sesioak.



“Gero eta gehiagotan egiten da kirola euskaraz, ez dago arazorik”

Gozatuz eta sufituz, kirola eginez beti ere, euskarak ikastaroetan toki garrantzitsua izan dezan lanean ari dira Buruntzaldeko Udalek. Euskaraz eta sufituzko sesioak. Gozatuz eta sufituz, kirola eginez beti ere, euskarak ikastaroetan toki garrantzitsua izan dezan lanean ari dira Buruntzaldeko Udalek. Euskaraz eta sufituzko sesioak.

Kirol ikastaroetan monitore lanetan aritzea ogibide bilakatu da Ander Peñagarikano eta Ruben Villalon gaitezatuz. Lasarte-Oria eta Urnieta kiroldegietan aritzen dira, nagusiki. Huelduekin bereziki, baina baita “eskola kirola” ere.

Ander Peñagarikano zarazaitarra azken bost urteetan monitore lanetan aritu da. Goizero Lasarte-Oria spinning eskola ematen ditu, biziki eta martentimendua ondoren. Eta, horrez gain, gimnasia eta spinning. Eguna Lasarte-Oria eta Urnieta kiroldegietan ematen du. Anderi ondo inuditzen zaio euskararen erabilera bermatzeko udalek hartutako neurriak ere, erdizara igarotzeko joera zegoen. Orain talde

euskaldunetan euskarak nagusitzen da. Ikastaro batak teknikoago dira eta azalpen gehiago eman behar da. Euskaraz egiteko ahalegina egiten dugu eta baten bati ulertzea kostatzen bazaito, azalpenak erdiaz ematen zaizkio. Ez da arazorik egoten”. Ruben Villalonen aguragim eskolak ematen hasi ohi du eguna, eta eguerdian haurrekin igarierlekuan murgiltzen da berriro. Arratsaldean Urnieta doa eta eguna amaitu aurretik gimnasia ematen du Lasarte-Oriako kiroldegian. Zorri untezi kirol jardueren irakusketaz jolasa bizi da. Euskaraz jarduteko irizpideak ezarri izana ondo inuditzen zaio Rubeni ere; “ikastaroetan hizkuntzen tipologia egin izanarekin ados gaude, ikastekin jarduteko irizpide batzuk izan ditugun”.

Metodologia

Kiroldegiko ikastaroak euskalduntzeko programaren garapenean metodologia ezberdinak erabiltzen dira. Usurbilen esateko, ikastaroaren hizkuntza aldeaz aurretik definitzen da. Gainontzeko herrietan hizkuntza irizpidea ikasleei galdetu ondoren ezarzen zen lehen.

Gaur egun indarra hartzen ari dena tarteko metodologia da. Alegia, ikastaro bazuatan aldeaz aurretik ezarritzen da hizkuntza irizpidea eta beste hainbat kasutan ikasleei galdetu ondoren definitzen da. Metodologia hori errepertatu, hiru talde egin dira:


- A taldea. Partaide guztiak edo ia guztiak hizkuntza ematen dira. Ondorioz, ikastaroa euskaraz edo nagusiki euskaraz emango da.
- B taldea. Partaideen erdiak baino gehiagok ulertzen du euskaraz. Beraz, ikastaroa ia erabat euskaraz emango da. Euskaraz ulertzeko zailtasuna duenak zailtasun gaitelamiaz emango zaizkio.
- C taldea. Partaideen erdiak baino gutxiagok ulertzen du euskaraz. Guzaki horretatik, ikastaroa nagusiki gaitelamiaz emango bada ere, euskaraz ulertzeko zailtasunak zuzentzeko emango da. Aukerarik ez zaio falako eskualdean.

ikasturte honen hasieran Buruntzaldeko Udalek kiroldegiko doazen herritarrei “Kiroldegiko ikastaroak euskalduntzeko programa”ren berri eman nahi diele. Publi errepertaje honen bitartez edota banatu dituzten eskuorrien bidez hainbat ikastaro euskaraz izango direla iragarri dute eta gainontzekoetan, beriz, talde tipologiaen arabera finkatuko da hizkuntza.

Alegia, A, B edo C talde modura identifikatu ondoren, hორთ baitako hizkuntza irizpidea ezarriko dute. Udalek ikastaroetako ikasleek euskararen lekua hartu eta sendo eusteko oitzakirik ez dute izango.

Aurretik ikastaroetan ikusitakoaren arabera, euskaraz nagusi den A eta B taldeetan konkordantzia hartuz da begiralearen eta ikaslearen arteko hizkuntza-harremena. C taldeetan, aldez, euskarari bidea ematea kostatzen da gehiago. Iraillean hasuko da ikasturte berria, kirola eginez euskarari eusteko aukera berria. Euskaraz gertuko ez duenarentzat iraila izan behi euskaraz barmatzen hasuko lehen pausua. Aukerarik ez zaio falako eskualdean.

Buruntzaldeako Udalek elkarlanean, kirol jardueretan euskarari txanda ematea begiz jota dute



FUTBOLA.-

Amestutako Liga hasiera Ostadarrentzat

Ohorezko Erregionalek 1-3 irabazi dute Hondarribian eta kadeteek 2-1 garaitu dute Kostkas

Ostadar SKTko kirol arduradun eta jokalariek pozik ziren larunbat iluntzean. Ez da gutxiagorako. Kadeteen Euskal Ligan eta Erregionalen Ohorezko mailan garai-pena lortu dute euren ligetako lehen jardunaldian. Hirugarren urtez, bien helburu nagusia mailari eustea da, horretarako baina, gototik egin beharko dute lan.

TXINTXARRI

Liga hasierak ez dira sekula errazak izaten. Aurreneboraldian prestatutakoa partida ofizialetan islatzea zaila da batzuetan, baina argi dago aurretik lana ondo egiten bada errazagoa dela gauzak irtezea, eta bi taldeek lehen urratsa eman dute. Bidea luzea da ordea.

Garaien garrantzitsua

Ostadarreko kadeteek 2-1 irabazi zuten Michelineen Kostkas igo berriaren aurka, maila mantentzeko zuzeneko aurkari baten kontra. Golak 30. minutuan Adei Zarrak eta bigarren zatia hasi bezain pronto Jon Lopez de la Calle sartu zituzten etxekoentzat. Kostkasen gola hamar minuturen faltan jaso zuten urdinbeltzek, baina eusteko adorea izan zuten herriko gazteboek. Joخان Beldarraín entrenatzailea pozik zen partida

amaituta: "Taldea honen sekretua elkartasuna da, asko laguntzen diogu elkarri eta hori izango da mailari eusteko bidea".

Erregionalak zoragarri

Hondarribiako Ondartza zelaian partida handia jokatu zuten Ostadarrek. Emaitza ona izan zen, 1-3koa, Gorka Briten bi gol eta Julenek sartutako beste bati esker, baina zoragarria izan zena emandako itxuria izan zen. Batez ere lehen zatian, dominatu zuten eta presioa aurreko lerroetan eginez, jarraia ona erakutsi zuten urdinbeltzek jantzitako mutilek.

Bigarren zatian beheara egin zuten lasarteriatariek bero handia tarteko, baina baita hondarribiarren eginahaleraren eraginez ere. Etxekoan gola penalti jaurtiketa bidez jaso zuten Ostadarrek bigarren zatian. Dena den, denboraldiko lehen hiru puntuek Lasarte-Oriarako bidea hartu zuten.



Ostadarren Ohorezko Erregionalak. 2014/2015 denboraldiko lehen hamaikakoa.

TXEMA VALLS

Maila mantentzea helburu

Euskal Ligako kadeteek iaiz 12. postua erdietsi zuten eta bi punturengatik ozta-ozta lortu zuten mailari eusteko balentria.

Ohorezko Erregionalek ere mazo sufitru behar izan zuten kategoria mantentzeko. Jaitziera postuetatik hurbilegi amaitu zuten bigarren itzuli kaxkar baten ostean.

Aurten etxeko lanak lehenago egiten saiatuko dira Ostadarreko bi talde nagusiak. Ez dira batere gaizki hasi.



Kadeteen partida fisikoki gogorra, baina polita eta aukera askokoa izan zen.

KIROL-JARDUERAK.-

Udaleko kirol eskaintza zabalda

Gaur hasiko dute ikasturtearen Udaleko Kirol Zerbitzuek eskeinitako ikastaroak. Izen-ematea irailaren 1ean ireki zen eta zabalik egongo dira ikastaro desberdinetan apuntatzeko lekua dagoen bitartean.

Besteak beste, aerobika, aqua gyma, zumba, indoor txirrimundularitza, *streaching* (luzaketak) etab. Luze bat dute herritarrek aukeran.

Udaleko kirol ordezkariak gustura dira kirol eskaintzak iaiz izan zuten harerarekin. "2013-2014 sasoiari iraupen luzeko aktibitateetan 800 bat herritarrek eman zuten izena eta gaztetxoaren kopurua 140koa izan ludekotako jardueretan", adierazi du Karlos Altuna Udaleko kirol teknikariak.

Berrikuntzak

Aurtengo nobedadeak bat baino gehiago izango dira.



Ikastaroetan izen-emateko epea irekita dago plazak bete bitartean.

Batetik, adineko pertsonekin lan egiteko asmoa azaldu du Karlos Altuna Udaleko kirol teknikariak: "Herriko elkartekin elkarlanean jarri dugu *Ono ibili* programa adineko pertsonenentz. Herriko erakunde ezberdinekin aritu gara lanean, esate baterako Odol Emaleen elkartearekin, Biyak Batekin, Danok Kide-

koekin... Gure helburua irailaren 26tik aurrera herriko pertsona adinduek kirola egiteko aukera gehiago edukitzea da".

Bestetik, kirol jarduerara sustatu asmoz, *streaching* edo luzaketa saioak doan izango dira bazkideentzat asteazketan arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

Eta azkenik, emakumezkoen zentro zibikoak bi jarduerara fisikoa, Zumba eta Pilates-a, eskainiko ditu kiroldegiko zerbitzuak eta instalazioak erabilita.

Kirola eta euskara

Bestealde, Udala ahaleginak egiten ari da euskara eta kirola uztartzeko. "Kirola Euskaraz programaren barnean, aurten hiru talde izango dira zerbitzua emateko, Indoor txirrimundularitzako talde batean, Ur-aerobikeko batean eta Zumbako beste batean euskara hutsean emango dira klaseak", adierazi du Karlos Altunak. Gai-nontzakoetan, klasearen beharren arabera erabakiko da zein hizkuntza erabili.

Informazio gehiago nahi duenak Kiroldegian edo 943 37 61 82 telefonoan topa dezke.

FUTBOLA.-

Herriko areto-futbol txapelketan izen-emateko epea luzatu da

Herriko talde eta koadrilek irailaren 21era arte izango dute irekita XXXII. areto-futbol txapelketan izen-emateko epea. Astelehenetik ostiralera, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara egongo da aukera Ostadarrek Geltoki Kalea 25 zenbakian duen egoitzan, edo bestela ostadarf@gmail.com helbidearen bidez egin daiteke eskaera.

Gehienez 18 talderentzako lekua dago txapelketan eta Michelingo Kirol-Gunean jokatu dira partida guztiak. Txapelketaren sistema joan-etorriko itzuliko izango da, eta ostean playoffak jokatu dira. Denboraldi amaierako Mossos memoriale berriz, zuzeneko kanporaketa bidez jokatu da.

Izen-emateko prezioa 400 eurokoa da talde bakoitzarentzat, eta horrekin batera 60 euroko fidantza ordaindu beharko da.

— Agenda —

Asteazketik, irailak 17, Mugikortasun Astea, 16:30etik aurrera



Jolas eta bizikleten txanda

Mugikortasun Astea antolatuta du udalak herriko kaleetan. Honen baitan hainbat ekintza burutuko dira haur zein helduentzat. Asteazkenean, kale Nagusia oinezkoentzat izango da 16:30etik 19:30era. Bertan jolas ezberdinak egiteko aukera izango dute haurrek. Ostegunean, hirian bizikletaren erabilerari buruzko ikastaroa egingo da 18:30etatik aurrera. Adin guztientzako ikastaroa da eta aurrez izena eman behar da 943670249ra deituta. Ostiralean, bizikleta festa egingo da Okendo plazan. 16:00etatik txandetan ibilaldiak eta bigarren eskuko bizikleten merkatua.

egoerari buruzko argazki erakusketa ikusgai.



VILLA MIRENTXUN

Irailak 20, 21, 26, 27 eta 28

Antxota, Lasarte-Oriako Artisten elkarteak antolatuta du erakusketa. 18:00tik 21:00ra izango da zabalik.

Bestelakoak

EXTREMADURA ETXEA

Irailak 20, 21-00etan

Antxota Lasarte-Oriako Artisten elkarteak afaria antolatuta du. Honetan arte-lanak zozketatuko dira. Aurrez izena eman behar da 690286986 zenbakian.

BIYAK BAT

Irailak 19, 11:00etan

Ondo-ibili egitasmoaren azken bilera irekia izango da. 60 urtetik gorako pertsonei asteen behin oinez egiteko ordu eta ordu eta erdiko ibilbide osasungarriak eskainiko ditu taldeak.

Usurbil

Santueneko jaiak

SANTUENEA AZUOA

Ostirala 19tik igandea 21era

Ekintza ugari izango da asteburuan zehar, musika eta jokoak tartean.

Lasarte-Oria

Musika

OKENDO PLAZA

Larunbata 20, 19:30ean

Behi Bi Blues taldeak dantza egiteko Rhythm and Blues eta rockabilly abestiak eskainiko ditu.

BASAUNDI PLAZA

Larunbata 27, 19:30ean

Adunia taldearen kontzertuak aurtengo Kultur Kale zikloari amaiera emango dio emandali honekin. Doinu zeltiar eta rock-a nahastan dituen abestiak eskainiko ditu. Abuztuan bertan behera utzi behar

izan zuten kontzertua eguraldi txarra iragarria zegoela eta.

Dantza

OKENDO PLAZA

Ostirala 26, 21:30ean

Kukai Dantza taldeak bere azken "Gelajauziak" lana aurkeztuko du. Emaldiaren protagonista dantza eta kalea dira. Lasarte-Oria dantzan ekimeneo saioa da hau Eusko Jaurilitzak dantza erakundeak sustatutakoa. Saio hau ere ulatzean bertan behera utzi behar izan zuen udalak hasi eta zen eguraldiagatik.

Maskota Eguna

ATSOKAKAR PARKEAN

Igandea 21, 10:30etik

Herriko hainbat eragilek bigarren urtez maskotaren berriz, bizikleta festa Urbanen. Maskotekin gerturatu eta hainbat joko eta probetan parte hartzeko aukera izango da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Irailaren zehar

Mundu Bat GKEk antolatuta Carmen Caballero argazkilaria Kolonbiako

— Herritarren txokoa —

Izena emateko azken egunak

2014-15 ikasturtean Lasarte-Oriako Udal Euskaltegian izena emateko azken eguna irailaren 17a, asteazkena, izango da. Interesa duen ikasleari gogorarazi 10 kuotatan ordaintzeko aukera egun horretan bukatuko dela. Aurtun Udalak euskara ikasteko ematen dituen diru laguntzak igo dira: %40tik %85era, edozein ikaslerentzat, %85eko asistentzia bete ondoren. Ordutegiak goizean 09:00tik 11:30etara, arratsaldean 15:00tik 17:30etara eta 18:30tik 21:00ra, astelehentik ostegunera, txandaka ibiltzeko aukerarekin. Informazioa gehiago 943 36 16 21 zenbakian.

Galdutako gaurak

Udaltzainek jakitera eman dutenez, gaur hauek daude jasota, hiru txirrinnda, bi mugikor, bi puttserra bata urezkoa, eraztun bat, bi erloju eta belarritakoak. Gaur hau jabeak direla egiatza-tzen diren herritarrek, hilabeteko epea dute Udaltzainen Bulegora hurbildu eta jasotzeko, goizez 09:00etatik 13:00etara.

Erketzen izena emateko aukera

Gaur hasi eta osteguna, irailak 18, bitartean Erketzen izena eman nahi duten 5 eta 14 urte bitarteko haur eta gazte txoei aukera dute. Zumburuko eskolan, dantza taldearen entsegu lekuan hain zuten, 18:30etatik 20:00etarako ordutegian egin behar da izen-ematea. Informazio gehiago eskuratzeko euskal dantza taldeak 635746028 zenbakia jarri du herritarrentzat. Erketz dantza taldeak, herriko gazte txoei animatzen dituzte lotsa galdu eta honetan parte hartzea.

Xumela entsueguak

Xumela koruak entsueguak gaur astelehena, irailak 15, hasiko ditu Landaberri BHI eraikinean. Entseguak 19:30etik 20:30era eginen dituzte eta honetan parte hartzea irekia dela gogoratu nahi duen sustatzaileek ikasturte hasiera honetan. Euskara ikasten ari diren herritarrek bertaratzeko animatzen dituzte batez ere kantuan ondo pasa eta euskaraz aritzeko lagun berriak egiteko leku aproposa delako.

Eskutitza

MILA ESKER LASARTE-ORIA!!!

Abuztuaren 28tik 31ra Xirimiri elkarteak antolatutako Garagardo Azoka izan genuen Okendo plazan. Jakina denez, gure elkarteak garai gogorak bizitzen ari da espainiar estatuak gure lana oztopatu eta desagertzea erabaki zuenetik. Azoka honetan ikusi ahal izan dugu, ordea, euren ahalegin guztien gaitetik, gure elkarte herrian ongi sustraituta eta herriarentzat lan egiteko prest dagoela.

Eskerrak eman nahi genizkizueke lau egun horietan muxurtxu lanean aritu zareten bolondres guztiei, 150 bat lagun guztira. AUPA ZUEK!!! Lanean aritu diren batzuk gure elkarteak bazkideak izan dira, bai, baina ez dira gutxiago izan azuolanean antolatutako azoka honetara elkartasunez batu diren herritarrik.

Eskerrak baita, azokara garagardo, ukondo eta abar dastatzera hurbildu zaren guztietatik. Guretzat oso garrantzitsua izan baita garai latz hauetan zuen babesa jasotzea. Lau egunez Xirimiri Elkarteak bizirik dela sentiarazi diguzuen guztiei, benetan mila esker.

Guretzat lau egun eder izan dira. Lasarte-Oria bizi eta solidario bat ikusi ahal izan dugu herriko plazan. Zailtasunak zailtasun Xirimiri Elkarteak aurrera egingo du. Nola? Inoiz baino lan gehiago eginaz eta gure elkarte herria hare eta gehiago zabalduz. Gure eskua luzatzen dizuegu herriko elkarte eta herritarrei elkarlanean Lasarte-Oria atsegin eta eder bat erakitzen jarraitzeko. Bide horretan ondoan izango gaituzte, dudarik ez izan.

Xirimiri Elkarteak Zuzendaritza

Zuen oharrak jarri, kekak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:

Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Parapetasonik IV, metala etenik gabe

Lasarte-Oriako Parapetoan metal jaialdia ospatu dute herriko musikazaleek, laugarrenez

Urteroko hitzordu garrantzitsua bilakaten ari da Parapetasonik jaialdia, ez bakarrik musikazale lasarteoriarrentzat, baita Gipuzkoa osoko metalaren maitaleentzat ere. Horren erakusgarri da Parapetoa beltzez jantzi dutela beste urte batez akorde eta riff gogorren erritmora. Probintziatik gura iriitsitako Debon, Drop1, Meltdown eta Human taldeen kontzertuek osatu dute kartel ofiziala, baina lau talde horiez gain, sorpresa ugari izan zituen larunbateko jaialdiak.

TXINTXARRI

Aurten tamalez ez da herriko talderik izan, iaz Hiloz eta Gabezia izan genituen, baina aurten atsedean hartu dute. Izan ere, ez baita eraza antolakuntza lanetan murgidurik egon eta kontzertuak ematea.

Dena den, eskala txikiagoan, baina lortu dute Parapetasonik jaialdia egitea. Iaz zortzi talde izan ziren, larunbatean lau: Debon beasaindarrak, Drop1 arrasatearrak, Meltdown hernaniarrak eta Human zestoarrak. Parapeto barnean egin dituzte kontzertuak aurten, eta kanpoan edari eta bokaltentzako txosna eta gitarra txokoa jarri dituzte.

Talde gazteentzat aukera

Talde gazteak bultzatzea helburu duen rock eta metal festibala da Parapetasonik, duela lau urte martxan jarri zuten herriko hainbat lagunek euren taldeei herrian eskenatoki alternatibo bat eman nahian.

Aurtengoan lau taldek zapaldu dute N-1 gainean kokatuta dagoen Parapetoko eskenatokia eta arrasaldetik hasita gaueko ordu txikietara arte jende asko hurbildu da arrasalde pasa edota gaueko kontzertuez gozatzera.

Antolatzaileak gustura ziren emaitzarekin eta datorren urtean Parapetasonik festibala prestatzeko intenzioa agertu zuten.



Debon talde beasaindarrak eskaini zuen lehen kontzertua. Behean, Parapetasonik metal jaialdiaren antolatzaileak.

Emaitza buelta bat zure munduari euskararekin 2014-15

ONDO iBiLi!

BALDINTZAK

- Lasarte-Orian erroldatau egotea
- Gutxienez % 85eko asistentzia

Kandi Sánchez Jiménez
Udal euskaltegia

Bidaia honetan daramadan mailetan opari batzuek badituzte, ezagutu ditudan herritako gutziak, hain zuzen ere. Gainera, **beken sistema berria ezin hobea da.** Ez pentsatu eta hartu euskararen urpekoa.

Ana Jose Minguéz Bazan
Muntteri-AEK euskaltegia

Euskara jakitearen hutsunea sumatu dut beti. Egia denekin hitz egin da hemen gaztelaniaz. Hitz egiten, denekin hitz egin dezakezula, **baina hizkuntzaren bidez modu desberdinetan iritsi daiteke jendearengana.** Kulturaliki altorra da. Eta nik ere bi hizkuntzetan bihurtu nahi dut.

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org

Udaleko euskaltegian: • Telefonoa: 943 361 621

Muntteri-AEK euskaltegian: • Telefonoa: 943 372 863

Lasarte-Oria
UDALA - AYUNTAMIENTO